

# IPUIN BELTZAK

Neskatxa txiki bat burezur txiki batekin jostatzen ari da. Amak galdetzen dio: "Non artu dun hori?" Neska txikia ezur zalea ba da ez da gezur zalea eta bereala aitortzen du: "Anaitxoren buruan, amatxo!"

XVII-garren mendean ba zen Frantzian borrero bat oso trebea. Garai hartan, Richelieu kardenal latzaren lege bat ausi zuelakotz, ii-epaia eman zioten Montmorency-Bouteville konde gazteari, eta delako borreroak zion lepoa moztu. Bai eta hain trebeki egin zuen ere non burua ez baitzen erori, baina lepo-gainean gelditu. Geiago dena, zalduna ez zen oartu ere lepoa moztu zitzaionik... Ukaldiaren begira zegoen oraindik, eta azkenekotz, asperturik, esaten dio burumozleari: "Borreroa, egik ire lana!" Eta besteak, begirunez: "Egüña dut, Jauna, astin zaite piska bat eta eroriko da."

Gizajale batek besteari: "Nola senti züñan aita-amak jan ondoren?"  
— "Umezurtz..."

Iguzki-sortaldeko uri batean: plazaren erdi-erdian kondenatu bat iltzen ari da, enpalaturik. Jendea begira dago. So-egile urrikaldun batek esaten dio doakabeari: "Min asko ematen dizu?" "Oh! bai", erantzuten du besteak, "batez ere parre egiten dudanean..."

Paristar bat, oporrak Mediterraneuko itsas-bazterrean igarotzen dituelarik, ba dijoa, bein, horra bizitzera etorri den adiskide bat ikustera. Adiskidearen emazteak bazterrak eta etxea erakusten dizkio. Bero aundia da, ordea, eta eltxo ugari ba dago. "Bai, ezin obekiago bizi züñateke hemen", diotsa Paristarrak, "eltxo horiek ez ba lira..." Egia da aspergarri direla, erantzuten dio emakumeak, "zorionez aitona gurekin dugu."



- Eta zer egiten die hark eltxoei?  
 —Egiten, ezer ez. Bainan eguraldia bero donean oso, aitona etxe arrearan jartzen dugu, billutsik, eta eltxo guztiak haren gana datoz.  
 —Agure gizajoa! Azka ta azka egongo da...  
 —Ez, ezin diteke; elbarritua da ta.

Langile batek begi bat galdu du ez-bear batean. Kristalezko begi bat erosten du beraz eta, garbi zalea delakotz, gauero, oerakoan, begizulotik kendu ta, arretaz ikuzten du. Bein batean, uts egiten du: kristalezkoaren ordez begi ona kentzen du. “Alajaiña!” oi u egiten du, sumindurik, “berriz ere argia moztu didate!”

Mutil koxkor erbail bat: doakabeak ez dauka ez ankarik ez besorik. Igande-arratsaldea bere lagun txikiekin igaro du parkean. Arratsean, lagunak etxera joan ondoren, amak galdetzen dio: “Zer egin duzue parkean?”

—Oh! ederki jolastu gera: futboleak jokatu dugu.

—Baiñan euk zer egin duk gizajo horrek?

—Nik? Baloia egin dut!

(Beltz eta zoro). Cabaret-artista bat da. Cabaret-ko zuzendariak galdatzen dio eia zerbait asmatu duenez arratseko programarako. “Baietz”, erantzuten dio, “ipuin parre-eragingarri bat asmatu dut, parrez iltzekoa, gero...”. Ageri da zuzendariak dudak ba dituela, ordea, eta artistak ipuiña kontatzen dio, bere aburua eman dezaiontzat. Bainan besteak hainbat parre egiten du non, azkenean, iltzen baita. Artista baitzen dute, zuzendaria berak il duelakoan. Gauza gertatu den bezala esaten die poliziako gizonei, baiñan hauiek siñesgogor dirudite. Orduan haiei ere ipuiña kontatzen die: parrez leer egiñik bertan iltzen dira poliziako buruzagia eta amaika amabi... Artista presondegian sartzen dute. Hantxe, bakar bakarrik, auziaren zai, biziaz zearo etsituta, azkenean bere burua iltzen du. Ipuin parrez iltzekoa bere buruari kontatuz, alegia.

J. MIRANDE-K BILDURIK.

